2006ko uztaila

51. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria

Txorierri udaz blai

Julio Ibarra – Larrabetzu eta Lezamako Andra Mari jaiak – Derioko Argazki Taldea

Larrabetzuko jaiak Gora Andra Mari!

Larrabetzuko Udalak jai zoriontsuak opa deutsuez herritar guztioi

Andra Mari
Tlfno.: [illegible]

LARRABETZU
BIZKAIA

Hernández Instalaciones S.L.
EMPRESA INSTALAZIOZKO-
KEKEGABEZKO, GAS ETA UR
[illegible]
[illegible] LARRABETZU (Bizkaia)
Tel/Fax 94 [illegible] / 606 [illegible] - E-mail: [illegible]

Nuestro horario
Lunes 18
LARRABETZU
BIZKAI ERDIA
Barriko ostatu
Kontzeji Instalagintza
[illegible]
[illegible]
[illegible]
-Clara
-Gin
-Bebidas
-Tapas
-Tinto
-Combo:

ETORKI TABERNA
Egunero menu
Astelehenetan menu berezia
[illegible]

FOTERI TABERNA
[illegible]

AIKOR!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Iñaki Astorkiza, Jose Luis Ruiz de Egino, Ohiane Etxebarria, Lorea Duñabeitia eta Ixone Ibarluzea

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

diruz lagundutako aldizkaria


22 Jabi Agirre

11 Julio Ibarra

14 EnerinTown programa, Derion

12 eta 24 Larrabetzu eta Lezamako jaiak

26 Derioko Argazki Taldea

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **11**Gurean izan da... Julio Ibarra **12**Larrabetzuko Andra Mari jaiak **15**EnerinTown programa, Derion **22**Jabi Agirre, *Bizi poza* **23**Lezamako Andra Mari jaiak **26**Derioko Argazki Taldea **28**Baserri mundua **29**Teknologia **30**Musika... Iñaki Berasategi **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
fokuala, arbiriak eta hilerriak

Fontaneria-materiala
Ikatzak eta biomasa
Hormigoia eta morteroak

Ez gaz danok

IÑAKI ASTORKIZA
(Irakaslea)

Holan inoan BECen (Bertso Exhibition Center) ahiztuezina bihurtu dan bertsolari txapelketako finalean agertutako pankarta batek. Egia zan, ez gengozan danok, eta ziur nago gure kulturarako ekarpen handia egin leikiela hara joan ezin izan ziran euskal preso politikoak be. Dana dala, ez da hori gaur dakardan gaia. Pankarta horretan agertzen zan esateko ereak emon eustan zer pentsatu. Batetik, mezuaren egileak nongoak ziren argi itzi gura eben, ondarrutarrak. Bestetik, Bizkaiko herri horretakoak izatearen harrotasuna be erakusten eben. Eginikoa, berez, ondo dago. Halanda be, zalantza bat gelditu jatan; danok holan hasiko bagina —bakoitzak bere herri hizkeran idazten— euskereari mesede egingo geunskion edo ez. Holan jokatu ezkero, gure hizkuntzearen abe-

"Bakoitzak bere herri hizkeran idazteak mesederik egiten deutso euskereari?"

rastasuna erakutsiko genduke? Nago mesede baino kalte gehiago egingo geunskiola euskereari.

Honek guztionek gure hizkuntzearen normalizazino faltea erakusten dau. Imaginatu ezina izango litzateke gaztelaniaz "no eztamoz toos"-edo idatzita ikustea, edo, gitxienez ez genduke normaltzat hartuko.

Argi dago herri hizkerak gure nortasunaren parte direla. Gainera, askotan, euskera batuak eukiten dauen plastikozko hats hori apaldu eta gozotu be egiten dabela. Baina, ekarpen hori eraginkorra izan daiten herri hizkerea zein esparrutan erabiltzen dan erabaki behar da. Ondarroan, eta batez be ondarrutarrentzat eginiko ekitaldi batean testu hori agertuko balitz, txalotu egingo neuke, baina Euskal Herri osorako pentsatutako ekitaldi batean, eta Barakal-

"Herri hizkerea eremu idatzira, beste barik, ekartzea arriskutsua da"

don, ez akaso.

Beste alde batetik, herri aldizkari baten alkarrizketa bat herri hizkeran publikatzea ondo iruditzen jat; lantzean behin, notizia laburren batzuk-edo sartzea be bai. Baina, herri hizkerea eremu idatzira, beste barik, ekartzea arriskutsua da. Ez ahiztu euskeraz irakurtzen daben asko eta asko euskaldun barriak direla, eta horrei, batez be, itzel kostatuko jake irakurtzea. Ez daiguzan erderearen besoetara bota.

Euskal Herriko eskualde bakoitzean, batez be eremu idatzirako, bertoko batua bultzatu behar dalakoan nago. Euskera batu hori ez da bera izango Txorierrin edo Nafarroako Sakanan. Bertoko euskera batu hori herri hizkeran oinarritu behar da, bertotik hartuko ditu berba asko, joskerea, aditzak erabiltzeko moduak… baina, txokokeriak baztertuz, eta batzen gaituena, banatzen gaituena baino gehiago indartuz.

Gaia sakondu gura dauanak badauka zer irakurri. Koldo Zuazoren "Euskara batua. Ezina ekinez egina". Merezi dau.

Amaitzeko, esan beharra dago BECen gengozan guztiok "Ez gaz danok" leloa ondo ulertzen genduala, baina, gainera, hausnarketarako bidea emoten badau, hobeto. Ea hurrengorako "Bagagoz danok" esaterik daukagun.

1, 2, 3, …

ASIER ORUETXEBARRIA
(Irakaslea)

Nork ez daki zenbatzen? Ezin daikete esan ez doguzala zenbakiak erabiltzen. Baina bere garrantziaz konturatzen gara? Zenbat kode, telefono zenbaki edo txartel zenbaki gogoratzen doguz? Zer egingo genduke zenbaki barik? Artikulu hau matematikearen aldeko aldarrikapen garbia da, ez horrebeste zenbakiak defendatzeko, matematikea ez dalako zenbaki hutsa. Guztiok ikasi dogu hain gorrototutako matematikea, batzuek gehiago beste batzuek gutxiago, eta gai bat ikasi ostean (edo aurretik) betiko galderea, eta honek zertarako balio dau? Batu, kendu, zatitu, ehunekoak kalkulatu. Eta azaleren kalkuluak bai balio dabe, baina polinomioak, adibidez, zertarako? Ba bai, gure bizitza aurruntean, egunerokoan, txirrina jo, dutxatu, gosaldu musikea entzun…erabiltzen dogu matematikea. Ez modu zuzenean, baina CD bat entzukeran bere grabaketea matematikean oinarrituta dago. Edozein ordenadore biztukeran milaka algoritmo matematiko jartzen dira martxan.

Garrantzi eta arreta gehiago emon beharko geunskio matematikeari. Ez itzi lan guztia kalkulagailuei, erabili burua. Burua erabili ezean atrofiatu egiten da. Kirola egiten badogu gorputza sasoian eukiteko, ez ete da garuna muskulurik garrantzitsuena? Ba holan izanik landu daigun.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Gora Santiago eta San Inazio jaiak!

Kaixo derioztar guztioi,

Santiago jai batzordeko kideak gara eta **AIKOR!** aldizkariak eskaintzen digun aukera honetaz baliatu gara zuek agurtzeko. 2006. urtea, jai batzordeko kide moduan, gure azken urtea dela jakinarazi nahi dizuegu. Momentuz ez daukagu ondorengorik, beraz, badakizue, norbait animatzen baldin bada Udaletxera jo eta gurekin kontaktuan jarriko zaituzte, animatu!



Urte hauetan guztietan jende askoren laguntza izan dugu, bai lagunena, bai familiarena, Udalarena... Horiei guztiei mila esker, bihotz bihotzez. Ez dugu ahaztu nahi urtez urte beti gurekin egon den Jesusin Atxutegi (kiderik nagusiena eta gehien iraun duena).

Aipamen berezi bat egin nahi diegu gure aurrekari izan diren Iratxe Urrutikoetxea, Esther Apraiz eta beraien senarrei, ekainean lehen aldiz guraso izan direnei. Zorionak eta muxu handi bat zuei eta Juneri eta Beñati ere bai!

Gutun hau hasi bezala amaituko dugu, zuek agurtuz eta urte hauek zuekin batera igarotzea plazer handia izan dela esanez. Momentu onak eta gogorrak izan ditugu, baina zuek jaiekin bat egin duzue beti, horregatik gure eskerrik beroena luzatzen dizuegu.

Jai-batzordea

Loiu, ume sahararren bilgunea

Loiu Saharatik etorritako umeen topagune bihurtu da berriro ere, azken 10 urteotan gertatu den moduan. Izan ere, hango pilotalekuan bildu ziren Euskal Herriko hainbat herritara uda pasatzera joan baino lehen. Guztira, 450 bat saharar pasatu dira Txorierritik, baina bost baino ez dira geratuko hemengo familiaren batekin: Larrabetzun eta Sondikan. Gainerakoak Bilbo, Gatika edo Karrantza aldera joango dira, besteak beste.

Vicente Arteagoitia Loiuko alkatea ere han izan zen eta elkartasuna bultzatu behar zela esan zuen. "Albiste ona da hain egoera latzak bizi dituzten umeak guregana hurbiltzea, eta oso pozgarria da familia eta haurren artean dagoen maitasuna".

Pedro Arevalo durangarra 27 de febrero elkarteko kidea da. Talde horrek hau-

rrak Euskal Herrira etortzea kudeatzen du eta Pedrok Saharako umeak hartu ditu azken lau urteotan. "Oso egoera latza bizi du Saharako herriak, eta neurri batean laguntzen saiatzen gara".

Deriok Ibaialde erakusketa hartu du

Uztailaren 6tik 18ra bitartean, Ibaialde erakusketa izan da Derioko kiroldegian. Erakusketa Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro eta Hezkuntza Sailak antolatu du, eta ibaiak gazteengana hurbiltzea izan du helburu. Bederatzi panelek osatzen dute erakusketa, eta bertan hurrengo datu hauek zabaldu dira: ibaien eta ekosistemen gaineko informazioa, horiek izaten dituzten aldaketak, zergatik kutsatzen diren, eta zer egin daitekeen horiek mantentzeko.

Uzta Eguna 06, Lezaman

Urriaren 1ean, Lezamako Uzta Eguna ospatuko da Udaletxeko plazan eta atzeko kalean. Bertan txakolina, ogia, pastelak… dastatzeko aukera izango da, eta bertoko txakolingileen produkzioa ere ikusgai jarriko da.

Azokak nobedadeak dakartza aurten, izan ere, irailaren 29an, 20:00etan, txakolinaren gaineko hitzaldi bat antolatuko da Kultur Aretoan. Hitzaldia enologo batek emango du, eta txakolin kata eta guzti egongo da. Era berean, ardo eta txakolinari buruzko ikastaroa egingo da urtean zehar.

Udal ikastaroetan izena emateko epea, irailean

Txorierriko udal ikastaroak urrian hasiko dira eta haietan izena emateko epea irailean irekiko da. Sondikan, adibidez, irailaren 5etik 13ra bitartekoa izango da; Derion, irailaren 19tik 21era bitartekoa; Zamudion, irailaren 25era arte; Lezaman, irailaren 11tik 22ra bitartekoa; eta Larrabetzun irailaren 18tik 20ra bitartekoa. Loiun irailean zehar izango da. Beraz, adi egon.



Txingorrak kalte handiak eragin ditu Lezamako negutegi batean

Uztailaren 4an, arratsaldeko 5ak inguruan, zerua belztu eta egundoko txingorraldia bota zuen. Txingorra oso tamaina handikoa zen eta hainbat hondamendi sortu zuen auto eta landetan. Baina kalterik handienak Lezamako SAT Legu negutegian gertatu ziren; izan ere, negutegi hori kristalezkoa da, eta txingorrak 3000 bat kristal apurtu zituen. "Ez dugu inoiz hain tamaina handiko txingorrik ikusi. Gainera, oso gogor ari zuen. Bulegora sartu behar izan genuen korrika", esan digu bertako Ekaiz Legarretak. Ekaitzaren ostean barea dator, baina kasu honetan galera-zenbaketa egiteko ordua ailegatu da. "Kristalak, galdu ditugun landareak, apurtu diren sare termikoak… Dirutza handia galdu dugu". Negutegia astebetean izan dute itxita, garbitze lanetan burubelarri ibili behar izan dutelako. "Auzokideak, lagunak, familia… etorri dira garbitzen laguntzera. Egunero 15-20 pertsona ibili gara berton, eta horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu".

Ostalaritza-elkartea eratu da Derion.– Derioko 30 inguru ostalarik Ostalaritza-elkartea sortu dute. Elkarteak hurrengo helburu hauek ditu: Udalaren eta ostalarien arteko komunikazioa erraztea, arazoak bateratuta konponbideak ematea. Horrezaz gainera, herriko ostalaritza bultzatu nahi dute.

Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Astea, Larrabetzun

Irailaren 16tik 22ra bitartean Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Astea ospatuko dute Larrabetzun. Irailaren 18an, 19an eta 20an tailer eta ekintza bereziak egingo dira ludotekan eta hilaren 21ean kalera aterako dira umeak, gidariei eta oinezkoei isunak jarri edo sariak ematera. Halaber, Autorik Gabeko Eguna izango da hilaren 22an. Egun horretan puzgarriak eta tailerrak egongo dira plazan.

Autorik gabeko Sondika

Irailaren 22an, Nire autorik gabeko Sondika deitutako jarduera egingo da, Udalak antolaturik. Jarduera hori IHOBE ingurumen jarduketarako sozietate publikoak babesten du. Arratsaldeko 5etatik aurrera, hainbat ekitaldi egingo dira: lantegiak, jolas-parkea, txirrindulari ibilaldia… eta 19:30ean txorizo jatea izango da. Jarduerok Sabino Arana kalean egingo dira.

'Gazte Egune 06', prest!

Uztailaren 29an eta 31n "Gazte Egune 06" ospatuko da Larrabetzun, Hori Bai gaztetxeak antolaturik. Egun biotan egingo diran ekitaldien artean aipatzekoak dira parrilladea, olinpiadak, kontzertuak eta herri bazkaria.

Beste alde batetik, Hori Bai gaztetxekoek bloga jarri dabe martxan: **http://www.blogak.com/horibaigaztetxea**. Blog horretan Gazte Egunari eta gaztetxean antolatzen diran ekitaldiai buruzko informazioa emongo dabe.

Uztailaren 29a, zapatua
12:00: Trikipoteoa
14:30: Parrilladea, saiheski eta sagardoagaz
Arrasti osoan: musika maratoia
18:00: Gaztetxe eta gazte asanbladen arteko olinpiadak
22:00: Mani + Festa + Akzioa
24:00: Kontzertuak:
Koma
Pal´Kelly (O´Funkilloko taldekide ohiak)
Des+Karadas (Kataluniatik)

Uztailaren 31, astelehena (San Inazio)
11:00: Txistulariak eta trikipoteoa
14:30: Herri bazkaria. Ostean, Mus eta Briska Txapelketa
22:00: Erromeria, plazan

Guerrerok futbolean jokatzeari utzi dio

Julen Guerrero Athleticeko jokalariak futbolean jokatzeari utziko diola iragarri digu hilabete honetan. Albisteak ustekabez harrapatu ditu talde zuri-gorriaren zaletuak, izan ere, egun bi lehenago gainontzeko futbolari zein teknikariekin batera aurkezpen ofizialean parte hartu zuen. Portugaletekoari urtebete falta zitzaion kontratua amaitzeko eta 32 urte dituela, Ohorezko mailan jokatzen duen Athleticeko gazte taldea entrenatzen hasiko da.

Guerrerok Athleticentzat erabakirik "aproposena" zela adierazi zuen prentsaurreko hunkigarri batean. Hedabideen aurreko agerraldia laburra izan zen, emozioak eta negarrek ez baitzioten hitz egiten utzi aurrelariari. Portugaletekoak oso lotura estua du Txorierrirekin, bertan bizi da, eta jatetxe bat dauka, alegia.

Guztira, 430 partida jokatu ditu Athleticen 14 denboralditan, eta 116 gol sartu ditu. Horrez gain, Munduko Txapelketa bi (EEBB'94 eta Frantzia'98) eta Eurokopa batean (Ingalaterra'96) aritu da Espainiarekin. Euskadiko Selekzioan ere ibili da, 12 aldiz, hain zuzen ere. Euskadirekin 6 sei gol sartu ditu.



Argazkia: Athletic Club artxiboa

Euskal Ezkontza Santa Kurtzeko jaietan

Irailaren 14tik 17ra bitartean, Santa Kurtzeko jaiak izango dira Sondikan, bertako Udalak eta CD Sondikak antolatuta. Ekitaldiak Larrabarrena parkean egingo dira, eta horien artean hurrengo hauek aipa daitezke: kalejirak, txorizojana, umeentzako jolasak, dantza agerraldia… Horrezaz gainera, irailaren 17an, domekaz, Euskal Ezkontza egongo da Goraintzaileak dantza taldeak eratuta. Sondikako dantza taldeak 40 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte; Euskal Ezkontza, haien artean. Desfilea Goronda Beko kiroldegitik aterako da 12:00etan eta ibilbide hau egingo du: Lehendakari Agirre etorbidea, Txorierri etorbidea, Goiri enparantza, Errementeri kalea eta Larrabarrena parkea. Bilboko Gaiteroek, Zanpartzaiek, Bertokoko trikitilariek, Agrupación Olagüek, Elaiak txistu taldeak eta Goraintzaileak dantza taldeak girotuko dute desfilea.

Herri bazkaria ere izango dute Larrabarrena parkean, eta, horren ostean, erromeria egongo da, trikitilariek eta gaiteroek alaituta.

Jai egitaraua

Irailaren 14a, eguena
11:00: Kalejira, trikitilariekin
12:00: Meza, Santa Kurtze ermitan eta ohorezko aurreskua
18:30: Betizuak, a ze zirkua!

Irailaren 15a, barikua
18:00etatik 21:00etara: Haur eta gazteentzako parkea
21:00: Txorizo jana
24:00: Dantzaldia, Amaiur taldearen eskutik

Irailaren 16a, zapatua
10:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistularitaldearekin
10:30etik 14:30era: Haur eta gazteentzako parkea eta I. Haurren Marrazketa eta Pintura Lehiaketa
11:00: Kalejira, McKensy´s Clan Band taldearekin
17:00: Futbol partida (kadeteak), Gorka Fernandezen omenez: Sondika-Athletic
19:30: Haurrentzako dantzaldia, Traperos del Río taldearekin
23:00: Diskoteka. Kontzertua: Su Ta Gar. Diskoteka

Irailaren 17a, domeka. Euskal Ezkontza
12:00: Desfilea, Goronda Beko kiroldegitik
14:00: Herri bazkaria
17:00: Erromeria, trikitilari eta gaiteroekin

San Migel, Derion

Irailaren 22a, barikua
19:00: Txosnen irekiera ofiziala
19:30: Kalejira, fanfarreek girotuta
21:00: Txupina eta pregoia
21:15: Txitxiburduntzia eta sangria
22:00: Mozorro Lehiaketa
00:00: Gau festa, Lisker taldearekin. Ikuskizun erotikoa atsedenaldian
05:00: Diskoteka

Irailaren 23a, zapatua
10:00: Goizeko traka
11:00: Umeentzako parkea
11:30: Gastronomia Txapelketa
14:00: Lapikoen aurkezpena eta sari banaketa
15:00: Herri bazkaria
00:00: Gau-dantza, Nuevo Talisman taldearekin. Traka atsedenaldian
05:00: Diskoteka



Irailaren 24a, domeka
08:00: Sokamuturra
10:00: Goizeko traka
13:00: "Bilbainadak", Los 5 Bilbaínos taldearekin
18:00: Herriko nagusientzako luntxa + Dantza Alai
20:00: Diskoteka

Irailaren 29, barikua
19:30: Txorizoa sagardo-puntuarekin
21:00: Karaokea
00:00: Gau-dantza, Drindots taldearekin
04:00: Diskoteka

Irailaren 30, zapatua
10:30: Mikel Deunaren "Julio Garitano" IV. Futbito Txapelketa
14:00: Indabak guztiontzat, Txirimiri konpartsaren eskutik
15:00: "Postre sorpresa", La Kuadrilla konpartsaren eskutik
17:30: Zezen Lehiaketa
00:00: Gau-dantza, Nuevo Alaska taldearen eskutik
05:00: Diskoteka

Urriaren 1a, domeka
10:30: Mikel Deunaren "Julio Garitano" IV. Futbito txapelketa
12:30: Pintxoak, Xumuskumuxumus konpartsaren eskutik
17:00: Euskal dantzak, Lainomendi taldearen eskutik
20:00: Txokolatada
20:15: Konpartsen sari banaketa
20:30: Diskoteka
23:00: Txupina eta jaien amaiera

Santi Mami jaiak, Zamudion eta Derion

Abuztuaren 16a, eguaztena
18:00: Txupin nagusia
18:30: Umeentzako jolasak, Azkona taldearen eskutik
21:00: Sardina jana
22:00: Musika emanaldia, Los 5 Bilbaínos taldearen eskutik

Abuztuaren 17a, eguena
10:00: Kalejira, txistulari bandak girotuta
11:00-14:00: Umeentzako parkea
12:00: Meza, ermitan
14:00: Sukalki Txapelketaren aurkezpena
16:00-17:00: Umeentzako parkea
18:00: Kale antzerkia, Hortz Muga taldearen eskutik
19:00: Ardoa Barrura fanfarrearen emanaldia
21:00: Tortilla Txapelketa
22:30: Gau-dantza, Kresala taldearen eskutik

Abuztuaren 18a, barikua
10:00: Kalejira, txistulariek girotuta
12:00: Meza, ermitan
13:00: Auzoko adintsuentzako omenaldikopaua
14:00: Marmitako Txapelketa
16:30: XIII. Mus Arin Txapelketa
18:30: Gorritti eta bere animaliak
21:00: Txitxiburduntzia
22:00: Gau-dantza, Arizgoiti taldearen eskutik
24:00: Sorgina erretzea eta txokolatada

Sandoni, Zamudion

Irailaren 2a, zapatua. Sandoni Eguna
10:00: Txupinazoa
11:00: Sukalki Txapelketa
11:30: Meza, ermitan. Ostean, omenaldia nagusientzat
14:00: Sukalki Txapelketa. Aurkezpenerako ordua
16:00: Mus Txapelketa
18:00: Gorritti eta bere animaliak: pottokak, basurde-harrapaketa, umeentzako zekorketa…
22:00: Dantzaldia, Gau Alai taldeagaz
24:00: Txokolatadea

Irailaren 3a, domeka. Sandonitxu Egguna
12:00: Txakolin dastatzea. Bertokoko trikitilariek alaituko dabe goiza
13:00: Dantza agerraldia, Hiru-bat taldeagaz
18:00: Tortilla Txapelketa
20:00: Idi-probak
22:00: Dantzaldia, Gau Alai taldeagaz
24:00: Txokolatadea

Julio Ibarra, Metro Bilbaoko komunikazio arduraduna

“Ez dut telebistara inoiz itzultzeko aukera baztertu”

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Julio Ibarra EITBko aurpegirik ezagunenetakoa da. Teleberri programaren gaueko edizioan 10 urtez buru izan ostean, “abituak utzi” eta beste etapa bati ekin dio Metro Bilbaoko Komunikazio eta Marketin Zuzendaritzan. Loiuko jaietan pregoilari ibili da.

Hainbat proiektu duzu esku artean: metroan liburutegiak eta erakusketak jartzea… Aurpegia aldatu behar zaio?

Metroa guapoa da berez, eta ondo betetzen du bere lana: herritarrak garraiatzea. Bilbok metro abangoardista du eta haren instalazioak eta diseinua erreferenteak dira mundu osoan; hala ere, beharbada arima falta zaio. Nire ustez, azpiegitura abangoardista horri probetxu handiagoa ateratzea badago eta herritarrak harekin gozatzea lortu behar da.

Txorierriraino noiz?

Hori Bizkaiko Garraio Partzuergoren kontua da. Gure ardura Metro Bilbao da eta ez dugu pisurik beste gai batzuetan.

Teleberriren zuzendaria eta aurkezlea izatetik Metro Bilbaoko komunikazio-arduraduna izatera…

Telebista uztea oso erabaki hausnartua izan da. Argi nuen zer egin nahi nuen eta horregatik ez zait gehiegi kostatu erabakia hartzea. Eta, jakina, telebistaren eta irratiaren falta nabaritzen dut, han eman dudalako bizitza osoa. Hala ere, ez dut guztiz eten komunikabideekiko lotura, irratian eta telebistan kolaborazio puntualak egiten ditut eta. Gainera, bizitzak buelta asko ematen ditu eta ez dut telebistara inoiz itzultzeko aukera baztertu. Beste alde batetik, oso pozik nago etapa berriarekin, Metro Bilbao oso marka inportantea delako eta han badirelako hainbat esparru jorratzeko: komunikazioa, marketinga, publizitatea…

Audientzia liderra izan zara 10 urtean, baina horren atzean presioak eta mehatxuak ere egon dira. Urte gogorrak?

Bai, baina logikoa da. Zure programak zenbat eta eragin handiagoa eduki, hainbat handiagoak izango dira presioak, exijentziak… Baita egin behar duzun lana ere. Presio horrekin bizi izaten ikasi behar da, hor jarraitzen ikasi behar da.

Euskal Herria libre izan eta bakean bizi delako albistea ematea gustatuko zitzaizukeen. Horretan gabiltzala ematen du, nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso baikorra naiz. Hala ere, Lizarra-Garaziren osteko prozesuan ere baikorra nintzen eta azkenean ez zen aurrera atera… Baina bizitzak aukerak ematen ditu eta, gaur erortzen bazara, bihar altxatzeko aukera duzu. Eta politikariek ez ezik herritarrok ere badugu erantzukizuna prozesu honetan: ahaleginak egin behar ditugu, oraingoa behin betikoa izan dadin.

Zer deritzozu Estatuko komunikabideek euskal gatazkari eman eta ematen dioten tratamenduari?

Hori albiste iturri agortezina izan da eta kasu askotan ergeltasunez tratatu dute. Batzuetan, ezjakintasunaren ondorioz izan da; baina, era berean, kanpaina mediatiko batzuk egin dira helburu honekin: kutsatu eta egia ez dena sinestarazteko. Euskal gatazka Estatu gaitzat hartu da, botere politiko batzuek hainbat estrategia antolatu dituzte eta komunikabide asko ere estrategia horietan sartu dira. Denbora luzean komunikabiderik gehienak, Madrilgoak batez ere, Barne Ministerioaren esanetara egon dira.

Andramariak bero-bero datoz

Pilota partidak, antzerkia, erromeriak, bertsolariak, txapelketak… Ekitaldi sorta zabala izango da Larrabetzuko Andra Mari jaietan abuztuaren 13tik 16ra bitartean. Akermari jai giroan murgiltzeko prest dago!

Jai egitaraua

Abuztuaren 13a, domeka
17:00: Futbol 7 Txapelketaren finalaurrekoa eta finala
21:00: Herri afaria eta kantuz kantu

Abuztuaren 14a, astelehena
18:30: Pilota partidak, Olarreta pilota elkartearen eskutik
21:00: Txupinazoa eta kalejira: Akermari, txistulariak…
22:00: Odoloste jatea, tabernetan
23:30: Kontzertua eta erromeria: Zea Mays eta Laiotz

Abuztuaren 15a, martitzena
12:00: Txistulariak, fanfarrea eta harri-zulatzaileak
13:00: Pintxo jatea, plazan
18:00: Asto lasterketa
19:30: Balkoitik balkoira, Oihana Bartra eta Beñat Ugartetxea bertsolariekin
22:30: Erromeria: Tapia eta Leturia
23:30: Antzerkia. *Tetra Rip*, Trapu Zaharra taldearen eskutik
24:30: Erromeria: Tapia eta Leturia

Abuztuaren 16a, eguaztena
11:00: Triatloi txikia
14:30: Umeen bazkaria
17:00: Umeentzako antzerkia. *Txaribari*, Panta Rhei taldearen eskutik
18:30: Goitibehera Txapelketa (Loroñotik)
21:00: Jazz kontzertua
22:30: Kontzertuak: La Kinky Beat eta Desoreka

Abuztuaren 24a, eguena (San Bartolome)
13:30: Bizikleta igoera
14:00: Paella Txapelketa
17:00: Briska Txapelketa

Astoak eta goitibeherak

Duda barik, Andra Mari jaietako ekitaldirik arrakastatsuenetariko bat asto lasterketa da. Lasterketa hori Andra Mari kalean egiten da eta uritar askok hartzen dute parte. Parte-hartzaileak mozorro eta guzti ibiltzen dira astoz.

Beste alde batetik, Goitibehera Txapelketa egingo da Loroño auzotik Basaguren auzoraino. Txapelketa lehenengo aldiz antolatu zuten iaz, eta arrakasta handia izan zuen. Iazko irteera Agirre auzoan jarri zuten, baina aldatsa ez zen handia, eta goitibeherak geratu egiten ziren. Horregatik, ibilbidea aldatu dute aurten.

Bapo jatea ere bai!

Ondo hasiko dituzte jaiak larrabetzuarrek, abuztuaren 13an herri afaria egingo dute eta. Jai batzordeak edariak jarriko ditu eta bakoitzak jatekoa eraman beharko du etxetik. Eta afalostean, abesteari ekingo diote. Pantaila bat ipiniko da eta, haren laguntzarekin, errepasoa egingo diote Euskal Herriko kantutegiari.

Beste alde batetik, pintxo jatea izango da Andra Mari egunean. Hori uritar gehien batzen duen ekitaldietariko bat da eta pintxoen kalitatea ere gero eta handiagoa da.

Harri-zulatzaileak, lehenengo aldiz jaietan

Harri-zulatzaileen kirola gero eta ezagunagoa egin da gure artean, eta Larrabetzun ere gizon horien indarra eta trebetasuna ikusteko aukera izango dugu. Proba abuztuaren 15ean egingo da, 12.00etan, eta Gallarta eta Txorierriko taldeek hartuko dute parte. Proba puntuagarria izango da Euskal Herriko Ligarako.





Musikaz blai



Zea Mays: Bilboko taldeak errepasoa egingo dio bere diskografiari: *Zea Mays, Elektrizitatea, Harrobian* eta *Sortuz, grabitatearen aurka*. Aioraren indar handiko ahotsa entzuteko aukera ona.
Laiotz: taldeak Euskal Herri osoa zeharkatu du plazaz plaza.
Tapia eta Leturia: laukoteak hainbat urte darama Larrabetzuko jaiak girotu eta alaitzen. Haien arrakastaren ondorioz plazak txiki gelditzen dira.

La Kinky Beat: Bartzelonako taldea azken urteetako errebelazioetako bat da. Rock steadya, reggaea, punka, ska, hip-hopa… uztartzen dituzte euren abestietan.
Desoreka: Lezoko musikariengan hainbat musika motak izan dute eragina: metal eta rock gogorra, funkya… 2005-eko azaroan argitaratu zuten euren lehen lan luzea.
Horrezaz gainera, **jazz kontzertua** izango da abuztuaren 16an, Andra Mari kalean.

Emeteriak, Goikolexean

Baina andramariez gainera, beste jairik ere izango da Larrabetzun abuztuan: abuztuaren 30tik irailaren 1era emeteriak ospatuko dituzte Goikolexalden.



Abuztuaren 30a, eguaztena
20:00: Txupinazoa
21:00: Herri afaria: odolosteak, txorizoa, sagardoa…
23:00: Erromeria: Haitzama

Abuztuaren 31, eguena
12:30: Umeentzako dantzak
13:00: Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Sebastian Lizaso
17:00: Briska Txapelketa
20:00: Idi probak
22:30: Jazz kontzertua

Irailaren 1a, barikua
Goiz osoan: trikitilariak
17:00: umeentzako jolasak. Mus Txapelketa
18:30: Antzerkia. *Kokoloko*, Kilikade taldearen eskutik
20:00: Bizikleta igoera, Barrenetxera
21:00: Erromeria: Ene Bada

Larrabetzuko jaiak Gora Andra Mari!

arrekikili

Gora Andra Mari
herrikoiak
larrabetzuar guztientzat

Ondo pasa jaietan!

ONDA

Ondo pasa jaietan!

IRUSTA TABERNA
EGUNEROKO MENUAK
CLUB CALIEZ
MUSIKA ETA PARRANDA

ONDO-EROSI
Amaia Bilbao
Andra Mari, 15
Larrabetzu

arrainategia - pescadería
Hnos. VILLEGAS
Andra Mari, 30 bajera
Tfno: 94 455 71 42
48195 LARRABETZU
Bizkaia

KRIKETA
Kamisetak
Poloak
Kirol-jertseak
Zapiak
www.kriketa.com
KOPIERRIKO SERIGRAFIA

Karlos
PAPERA
ETA
PINTURA
ORO HAR
94 455 00 59
Andra Mari, 10 (Azua errepidea)
48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Derio parte hartzen ari da ENERinTOWN proiektuan

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) ENERinTOWN proiektua aurkeztu du. Proiektu pilotua da, Europa mailan garatuko dena. Proiektuaren helburua 100 eraikin publikotan energia kontsumoa gutxitzea da. Euskal Autonomia Erkidegoan, Derio, Bakio, Bergara eta Aguraingo udalek hartuko dute parte.

Europako zortzi erkidegok hartzen dute parte ENERinTOWN proiektuan. Erkidego bakoitzak lau udalerri aukeratu ditu eta udalerriotako hiru eraikin publikotan monitoreak jarriko dira energia kontsumoa neurtzeko. Derioko monitoreak udaletxean, eskolan eta Errekalde egoitzan ipiniko dituzte.

Eraikinetan gas naturalaren eta elektrizitatearen kontagailuak ezarriko dira. Gas naturalaren kontagailutik seinale bat bidaliko da elektrizitatearen kontagailura. Seinale biak elkartu eta informazioa zerbitzari nagusi batera bidaliko da. Datuak software berritzaile baten bitartez tratatuko dira eta horrela gasaren eta elektrizitatearen eguneko, asteko, hilabeteko eta urteko kontsumo zehatza jakiteko aukera egongo da. Halaber, monitorizazio sistemak alarma automatikoak sortuko ditu eta haiek udal bakoitzean jasoko dira, erabaki edo neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko. Horrezaz gainera, sistemak energia kontsumoaren bilakaera kontsultatzeko aukera emango du eta hilabeteen arteko konparaketak egin ahalko dira, besteak beste. Datuak lortu ostean, horiek landu eta neurriak hartuko dira, energiaren kontsumoa gutxitzeko. Europako Batzordearen kalkuluen arabera, energia % 5 aurreztuko da eta kasu batzuetan % 15era ere hel daiteke.

"Gas naturalaren eta elektrizitatearen kontagailuak udaletxean, eskolan eta Errekalde egoitzan ipiniko dituzte"

Iaz plaka fotovoltaikoak jarri ziren udaletxeko teilatuan. *Argazkia: Jose Luis Ruiz de Egino*

ENERinTOWN proiektuak 30 hilabeteko iraupena izango du. Programa aurtengo urtarrilean jarri da martxan, eta irailean hasiko dira datuak biltzen. Datorren urteko ekainean txostenak egingo dira eta neurriak proposatzen eta hartzen hasiko dira.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago hemendik aurrera Derioko Udalak energia kontsumoa neurtzeko kontagailuak jartzeko asmoa duela herrian egiten diren obra eta berritze lanetan.

Udalaren eta EEEren arteko lankidetza hitzarmena

Derioko Udalak eta EEEk lankidetza hitzarmena sinatu zuten 2004ko uztailean, herrian energiaren arrazoizko erabilera eta energia berriztagarriak sustatzeko. Ekimen horren barruan hainbat ekintza puntual egin dira: batetik, iaz plaka fotovoltaikoak jarri zituzten udaletxeko teilatuan eta herri ikastetxean, eta, bestetik, uztailaren 4an kontsumo gutxiko bonbillak banatu ziren herritarren artean. Laster panel termikoak ipiniko dituzte Errekalde egoitzan eta udal kiroldegian; haiek ur bero sanitarioa ekoiztuko dute.

Naikari (Lezama): 15 urte.– "Udalekuan eman dut izena zerbait egitearren. Bertan denetarik egiten dugu eta gehien gustatzen zaizkidanak futbol eta ping-pong txapelketak eta surf ikastaroa dira. Irteera gehiago egin beharko genituzke".

Lander eta Lier (Derio): 5 eta 6 urte.– "Gauza asko egiten ditugu udalekuan. Oso ondo pasatzen dugu, merendola eta mangerarekin jolastea ditugu gogokoen. Datorren urtean bueltatzeko asmoa dugu".



Lagun arteko uda

Udaz gozatzeko garaia da, umeentzat batez ere. Txorierriko udalek badakite hori, eta horregatik aurten ere antolatu dituzte udalekuak. Herri batzuetan aspaldiko kontua da, baina beste batzuetan duela gutxi jarri dira martxan. Haurrek eta gazteek primeran pasatzen dute eta, bide batez, auzo-lagunek elkar ezagutzeko aukera izaten dute. Loiuko udaletxean esaten duten bezala, "herria egiten dute".

Horretarako, denetariko jarduerak egin dira, batik bat, uztailean. Izan ere, abuztuan Zamudion baino ez dute jarraituko. Txorierri osoan 600 ume inguruk hartu dute parte era guztietako tailerretan (sukaldaritza, patinajea, kirolak, koktelak...), irteeretan (Karrantza, Gorliz, Donostia, Gorbeia... bisitatu dituzte) edota jokoetan.

Testua: Gaizka Eguskiza
Argazkiak: Gaizka Eguskiza, Ohiane Etxebarria, Lorea Duñabeitia eta Ixone Ibarluzea



-Fiskeia

Lehiaketa

Kontsultoria

Ahotikularitzu

LAGUNKOE

TORREKO TXAKOLINA

Hästens

ARTEAGA koltxol-denda

Berriko Seniseria • 94 454 51 47 • bERIO

Astrid (Sopela): 21 urte.– "Irakasle ikasketak egiten ditut eta lanera etorri naiz umeak izugarri gustatzen zaizkidalako. Batzuetan, behar neketsua da".

Naikeri (Sondika): 8 urte.– "Jolastera eta lagunekin egotera etorri naiz udalekura; etxean aspertzen zara, bestela. Gehien gustatu zaidana hipika izan da".





Ruben eta Aintzane (Zamudio): 13 urte.– "Tailerrak, jolasak lagunekin... Denetarik egiten dugu udalekuan. Gainera, tai-chi egin dugun lehendabiziko aldia izan da eta esan digute Deustun berriro egitera gonbidatuko gaituztela".



Ixone (Derio): 26 urte.– "Derioko Ludotekan egiten dut lan. Umeek lan handia ematen digute, baina, euren aurpegiak ikusten dituzunean, merezi duela konturatzen zara".

Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak



Zure sukaldean %10ko DESKONTUA

Julen (Loiu): 10 urte.– "Primeran pasatzen dut udalekuan oro har, baina pilotan jokatzeko tailerra izan da gehien gustatu zaidana".

Haizea (Larrabetzu): 6 urte.– "Oso ondo pasatzen dugu udalekuetan. Igerilekura joatea izugarri gustatzen zait, baina mendira joatea, ez".

Jabiren bizi-poza

Elorrion jaioa eta Lezamara ezkondua. Jabi Agirrek urteetan zehar hainbat euskal egunkaritan argitaratutako artikuluak bildu ditu *Bizi-poza* liburuan. Bertan euskara/erdera, lurra/zementua, presoak/askeak eta antzeko dualismoak aurkezten deuskuz. Liburua Zorrizketan Lezamako Euskera Alkarteak kaleratu dau.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Egin, Egunkaria, Gara, Berria… egunkarietan argitaratutako artikuluak dira bildu dituzunak.

Bai, baina guztiak ez. Batzuk gordeta nebazan: amaren heriotzari buruzkoa, gai sentimentalez mintzatzen direnak… Laster erretiro-garaia ailegatuko jat, eta hori etapa barritzat dot. Beraz, atzera begirada bat emon, eta nire bizitzaren "argazki" horiek batu nahi izan ditut, etxekoei, lagunei, txorierritarriei interesatuko jakezalakoan.

Noiz hasi zinan artikuluok idazten?

Egin egunkaria sortu zanean, sare antzeko bat osatu zan eskualdeka, bertara albisteak agintzeko. Ni abade nengoan orduan Goierrin eta noizbehinka inguruko barriak bidaltzen nebazan. Komunikabideak profesionalizatuz joan ziran, eta geroago, Txorierrira etorri nintzanean, bertoko jazoeren gaineko testuak prentsara agintzen hasi nintzan. Egoera batzuen aurrean idazteko beharra neban, izan be, horiek oso inportanteak ziran niretzat garai hartan, orduko egoera azaltzen ebelako. Beste artikulu batzuk pertsonalagoak dira, bihotz-bihotzez egindakoak. Liburuan agertzen diran testuak nire bizitzako pintzeladak dira eta hor dagozen pertsonek, gaiek… garrantzia handia izan dabe niregan.

Zergatik *Bizi-poza*?

Argitaratu dodan azken artikuluak horrela du izenburua, eta artikulu hori, hain zuzen be, aukeratu dot liburuari amaiera emoteko zein liburuaren izenburu. Testuan pertsonen bizitza laburbiltzen da, eta liburua laburbiltzeko be egokia dala pentsatu dot. Gure bizitzaren motorra bizi-poza da, azken batean.

Azalaren irudia be espresuki aukeratu dozu.

Lurdes Prudenciok eta Alex Zallok egin dabe. Irudiak hurrengo esanahi hau dau: edonork, pertsona moduan osatzeko, besteengandik hartu behar dau eta besteei emon be egin behar deutse. Liburuan agertzen diran pertsonaia guztiengatik, euskaratik, lurretik… zerbait hartu dot eta haiek be niregandik hartu dabe zerbait. Eta horrela, pertsona moduan osatu naiz.

"Nire bizitzaren "argazkiak" batu nahi izan ditut, etxekoei, lagunei, txorierritarriei interesatuko jakezalakoan"



Liburua artikulurik berrienarekin hasten da. Hori abiapuntutzat hartuta, erregresioa egiten dozu…

Artikulurik zaharrenarekin hasi eta berrienarekin amaitzea izango zan logikoena, baina nire bizitzako sustraia haurtzaroan dago. Oso oroipen onak eta positiboak ditut garai hartatik eta nire haurtzaroa da emaitza honen guztiaren oinarria.

Lezamako jaiak Gora Andra Mari!

Parte hartu gure jaietan

LEZAMAKO

(Bizkaia)

Jaiak euskeraz bizi!!!

CONSTRUCCIONES
LANDETANE, S.L.

ANDER ETXEBARRIA
MIKEL ETXEBARRIA

TABERNA JATETXEA

ESTANCO DAÑOBEITIA
VICTOR DAÑOBEITIA GUREPEGUI

LEZAMA
(Bizkaia)

Lezama, atsedenik ez!

Lezamarrak jaietan izango dira irailean zehar, izan ere, hilaren 3tik 16ra bitartean San Antolinak, Andramariak, Bola-lekuko eta Kurtzeko jaiak ospatuko dituzte herrian. AIKOR! aldizkaria inprentara eraman orduko, egitarau osoa ez dute zehaztuta eduki, hala ere, jai-batzordeak aurrerapena eman digu. Eta egia esan, hori ez dago batere txarto.

Irailaren 2a, zapatua. San Antolin
11:30: Meza, Legina auzoan
14:30: Herri bazkaria (Paella), Legina auzoan. (Txartelak 2 euroan jarriko dira salgai)
16:00: Mus eta Briska Txapelketak. Umeentzako jolasak, Legina auzoan
20:00: Pregoia, Iñaki Aretxabaletaren eskutik
23:00: Kontzertuak: Biok, Ehiztari, Muted eta Ene Bada

Irailaren 3a, domeka
15:00: Herri bazkaria, Zorrizketanek antolatuta
16:00: Umeentzako jolasak (Ur jaia)
17:00: *Haiekin, ezta haiek gabe* umorezko bakarrizketa, Jon Urrazaren eskutik
18:30: Bingoa eta merienda, Adintsuen Elkartean. Omenaldia amama Juliri (100 urte beteko ditu urtarrilean)
20:00: *Les tambours de feu* kale antzerkia, Deabru Beltzak talde bilbotarraren eskutik

Irailaren 7a, eguena
18:00: Pilota partidak, Pilota Eskolaren eskutik
20:00: Triki-poteoa
21:00: Odoloste jana, herriko tabernetan

Irailaren 8a, barikua. Andra Mari Eguna
12.30: Meza
13:30: Jubilatuentzako luntxa, Adintsuen Elkartean
17:30: Umeentzako zaldiak, frontoiaren atzean. Janeren eskutik.
20:00: Pilota partidak
24:00: Berbena, Amaiur taldearekin

Irailaren 9a, zapatua
11:00: Umeentzako puzgarriak
12:00etatik 14:00etara: Pintxo Txapelketa, tabernetan
14:00: Pintxo Txapelketaren sari banaketa
17:30: Txokolatada
18:00: Umeen dantzak, Gurutze dantza taldearen eskutik
23:00: Betagarri, Gualitxo eta Afonikos Perdidos.

Irailaren 10a, domeka. Bola-lekuko jaiak, Mikel Zarate plazan
10:00: Arku-tiroa
12:00: Luntxa eta trikitilariak
12:30: Paella Txapelketan izen-ematea
14:30: Paella Txapelketaren sari banaketa
16:00: Mus Txapelketa
17:30: Umeentzako jolasak. Ostean, txokolatada
21:00: Berbena, Luhartz taldearekin

Irailaren 13tik 16ra, Kurtzeko jaiak

(Oharra: **irailaren 7tik 9ra bitartean**, ikasturtean zehar egindako eskulanen erakusketa izango da, goizez zein arratsaldez, Kultur Aretoan).

Herri bazkaria eta otorduondo barregarria.– Urtero legez, irailaren 3an herri bazkaria izango da Udaletxearen atzeko kalean, Zorrizketan Euskera Alkarteak antolatuta. Oso arrakastatsua izaten da, bertan ehundik gora lagun izaten da-eta. Aurten Jon Urrazak girotuko die otorduondoa, izan ere, *Haiekin, ezta haiek gabe* umorezko bakarrizketa eskainiko die arratsaldeko 5etatik aurrera.

ZUTARRI S.L.
HARGINTZA, ORDOKORRAK.

OXANGOITI
Kultur Elkartea TABERNA
Pintxoak eta Gárcos
Gozoa eta Beroa

C.D.H. LOS AMIGOS DELCABALLO
Ikastaroak, bezeroen zaldiak zaintzea, urte osoan zaballik
Espezialitatea: umeak, 6 urtetik gora

Erritmoa ez galtzeko…

Biok taldea

Biok: Talde bizkaitarrak "Zuzeneko Onenari Saria" jaso zuen maiatzean, Herri Irratiko Sector Rock irratsaioaren eskutik. *Margo Debekatuak* euren lan berria da.
Ehiztari: Ehiztari Beltzak lehen eta Ehiztari orain. Rock, hard-rock eta stoner melodikoa uzartzen dituzte.
Muted: Abadiñoko seikoteak nu-metala lantzen du. Emaitza Sarean lanean entzun daiteke.
Betagarri: Aurkezpena ez dute behar. Gasteiztarrek errepasoa egingo diote euren diskografiari.
Gualitxo: Hegoamerikako tehuelche-indioek Walichu –Gualitxo edota Gualicho- espiritu gaiztotzat zuten, eta berari leporatzen zizkioten gaitz guztiak. Taldea 2004an sortu zen Iruñan, eta euren lehenengo diskoak Gualitxo du izena.
Afonikos Perdidos: Rock and Roll indartsua Valladolidetik.
Erromerian… Ene Bada, **Amaiur** eta **Luhartz**. Taldeak herriz herri ibiltzen dira Euskal Herriko jaiak girotzen eta alaitzen.

Basobaltz jai-batzordea sortu da

Apirilean Basobaltz Lezamako jai-batzordea eratu zen legalki. Jai-batzordea 25 bat lezamarrek osatzen dute: batzuk herriko kultura eta kirol taldeen ordezkariak dira, eta beste batzuk euren kabuz parte hartzen dute bertan. Batzuek esperientzia handia dute jaien antolamenduan, eta beste batzuk hasi berriak dira behar horietan.

Basobaltz jai-batzordeak ekitaldi sorta zabala antolatu du aurtengo jaiei begira. Horiek ume, gazte eta helduei zuzendutako ekitaldiak dira, egunez zein gauez disfrutatzeko modukoak.

Pintxo Txapelketa, ostalariek ahalegina egin beharko dute

Irailaren 9an, 12:00etan, Pintxo Txapelketari hasiera emango zaio Lezaman, eta jai-batzordea tabernarik taberna ibiliko da mokaduak dastatzen. Era berean, txartelak zabalduko dituzte herritarren artean, horiek ere pintxoak dastatzeko eta pintxorik onena aukeratzen laguntzeko. Sariak 14:00etan banatuko dira. Guztira, hiru sari emango dira.

Deabru Beltzen sua

Deabru Beltzak antzerki taldeak *Les Tambours de feu* lana aurkeztuko dute irailaren 3an. Muntaia hori gaueko kale-ikuskizuna da, eta bertan perkusioaren erritmo gaztea eta gogoratzeko erraza uztartzen da pirotekniaren dirdirarekin. Akerrek eta bere jarraitzaileek erritmoz, suz eta mugimenduz betetako kalejira egingo dute.

Derioko Argazki Taldea

“Etengabe lan egingo dugu, argazkigintza hil ez dadin”

Derioko Argazki Taldea (DAT) duela 11 urte inguru sortu zen, argazkigintza munduarekin zerikusia zuten hainbat herritarrek bultzatuta. Gaur egun 16 lagun dabiltza taldean eta euren helburua argazkigintza ahalik eta pertsona gehienei hurbiltzea da. Jose Luis Sodeto artista horien irakaslea da, eta berarekin, hain zuzen ere, izan gara solasean.

Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Derioko Argazki Taldea


Azken Rallya irabazi duen argazkia

Zein da DATen helburua?
Herriko jendea argazkigintza munduan murgiltzea; gazteak, batez ere. Eta argazkiak egiten dituzten horiek egiten jarrai dezatela. Horretarako, argazkigintza analogiko zein digitalaren gaineko ikastaroak antolatzen ditugu urtero. Laborategi propioa dugu eta hainbat urte eman ditugu argazkiak zuri-beltzez egiten, baina orain argazkigintza digitala ezagutu dugu. Hasieran errezeloak genituen; hala ere, mundu horrek ematen dituen aukerak ezagutu eta hor gabiltza… Beno, kurtsoez aparte, Derioko Argazki Rallya antolatzen dugu, baita urtean behin argazki lehiaketa ere. Eta txangoak egiten ditugu,

“Areto bat beharko genuke, gure artea adierazi ahal izateko eta herritarrek ere hori ezagutu ahal izateko”

natura ezagutzen eta errespetatzen ikasteko. Naturaren gaineko argazki pilo bat egiten dugu, argazkigintza eta naturaren arteko orekaren bila gabiltza-eta.

Erakusketak direla-eta kezkatuta zabiltzate…
Udalarekin harreman ona dugu eta Larrabarri baserriaren atikoa utzi digute, bertan argazki erakusketak egiteko. Hala ere, gure ustez, hori ez da lekurik aproposena derioztarrek gure lana ikusteko, izan ere, ordutegi mugatua du eta apur bat urrun dago… Batzuetan argazkiak jartzen ditugu herriko tabernetan, baina areto bat beharko genuke, gure artea adierazi ahal izateko eta herritarrek ere hori ezagutu ahal izateko. Zamudion eta Astrabuduan ipini ditugu erakusketak

eta beste proiektu bat dugu Leioan egiteko… Etengabe lan egingo dugu, argazkigintza hil ez dadin.

Laborategi profesional bat ere bisitatzen duzue urtean behin, beste ekintza batzuen artean.

Bai. Bizkaiko Argazki Elkarteen Konfederazioaren barruan gaude eta jardunaldietan eta bileratan ere parte hartzen dugu, materiala elkartrukatzen dugu, eta abar. Beste alde batetik, Kursaalean egiten den nazioarteko argazki erakusketa batera joaten gara urtero, teknika eta sistema berriak ezagutzera; ikastera, azken batean.

Derioko Argazki Rallyak sei urte bete ditu aurten eta azken edizio hori oso arrakastatsua izan da, gainera.

Aurten Sopelako, Bilboko, Barrikako eta Azpeitiko lagunek parte hartu dute bertan eta maila oso altua izan da, benetan. Oso zaila suertatu zitzaigun argazkirik onena aukeratzea. Partaideen artean bederatzi ume egon ziren, eta hori izan zen inportanteena guretzat. Horietako batek oso maila handiko argazkiak atera zituen.

Udalerako ere lan batzuk egin dituzue: frontoiaren inaugurazioaren eta euskal ezkontzaren gaineko erreportajea, esate baterako.

Euskal ezkontza oso ekitaldi polita izan zen, bertan herri osoak — Derio euskaldunak, zein ez euskaldunak— parte hartu zuen-eta. Argazkiak zuri-beltzez egin genituen, kutsu tradizionala mantendu nahi izan genuelako… Egia esan, oso lan ederra atera zitzaigun eta jendea oso pozik azaldu zen. Lan horietatik beste ideia bat atera zen: Derioko argazki artxibo historikoa egitea. Udalari esan, eta horretan gabiltza. Herriko elkarte batekin harremanetan jarri gara, izan ere, antzinako argazkiak emango dizkigute, eta guk horiexek aterako ditugu berriro, baina gaur egungo perspektibatik. Halako artxiborik izatea oso garrantzitsutzat jotzen dugu, datozen belaunaldiek ezagut dezaten zer dagoen gaur eta zer zegoen lehen.

"Derioko argazki artxibo historikoa egitea beharrezkotzat jotzen dugu, datozen belaunaldiek ezagut dezaten zer dagoen gaur, eta zer zegoen lehen"

Zeintzuk dira aurrera egiteko dituzuen baliabideak?

Lehen esan bezala, zuri-beltzezko argazkiak egiteko laborategia dugu eta gure esfortzua eta Udalaren dirulaguntzari esker, plato txiki bat egin ahal izan dugu. Ordenadorea eta negatiboetarako eskanerra ere erosi ditugu, eta antzinako negatibo guztiak eskaneatzen gabiltza, horiek euskarri digitalera pasatzeko. Lokal handiagoa izatea gustatuko litzaiguke, baina ezin gara kexatu.

Etorkizunerako planik?

Gure artxibo propioa sortu nahi dugu, eta, horretarako, taldearen material guztia euskarri digitalera pasatzen gabiltza. Epe ertainean erakusketak egiteko asmoa dugu Euskadi mailan. Oso zorrotzak gara gure lanarekin eta elkarrengandik ikasten dugu. Nik oso ikasle onak izan ditut eta horiek ni baino hobeak dira gaur egun. Hori poztasun handia da niretzat.

Txorierrin argazki talde bi baino ez dago: Sondikakoa eta zuena. Talde gehiago sortzeko beharrik?

Bai, guztiontzat aberasgarria izango zelako. Eta inor animatzen bada, gu prest gaude ahal dugun guztian laguntzeko.

Beste alde batetik, taldean jende gehiagok parte hartzea gustatuko litzaiguke, ekarpen berriak egiteko. Taldearen web orrialdean **(http://comunidades.kzgunea.net/dat/ES/default.htm)** lagun asko sartzen dira eta hori estimulu handia da guretzat. Lan egiten jarraitzera animatzen gaitu.



Arrakastatsua izan da Larrondoko I. Azoka Ekologikoa

Uztailaren 9an, Larrondoko I. Azoka Ekologikoa egin zen eta oso jendetsua izan zen. Horrek argi erakusten du jendeak interes handia duela produktu ekologikoetan. Antolatzaileak Loiuko Udala eta Ekolour elkartea izan ziren eta BBK-k diruz lagundu zuen.

Larrondoko Azokan 25 ekoizle ekologikoek hartu zuten parte, eta, besteak beste, okela, barazkiak, kontserbak, eztia eta ardoa aurkeztu zituzten. Eskulangileek ere euren txokoa izan zuten azokan, eta han zazpi eskulangileren lanak erakutsi ziren.

Beste alde batetik, Armonía Algortako jatetxe begetarianoak egindako pintxo ekologikoak dastatzea aukera egon zen eta gazta eta talo tailerrak egin zituzten umeentzat.

Argazkiak: Itxaso Marina

ITXORIERRI Inmobiliaria

Zerua Jatetxea

Baserri • Nekazal
VIGNAU
Dela gaia produktu ekologikoak, gaia ekologikoak, barazki, jakiak, ardoak...
Plater aurrekoztatuak

Letrak Jokagai, Elhuyarren eskutik



Elhuyar Fundazioak Mah Jongg antzeko ordenadorerako joko berri bat plazaratu du: Letrak Jokagai. Hori euskaraz atera den era horretako lehenengo jokoa da.

Hiru joko ezberdinek osatzen dute Letrak Jokagai, eta hirurek pantailan agertzen diren fitxak kentzea dute helburu. Horrela, bada, joko bitan irudi-bikoteak egin behar dira eta hirugarrenean hitzak osatu behar ditu erabiltzaileak. Azken joko horretan sortzen diren hitzak ondo dauden jakiteko, Elhuyar hiztegiaz baliatzen da aplikazioa.

Letrak Jokagai gazteei zuzendutako jokoa da; hala ere, nagusientzat ere bada aproposa.

Opentrad, itzulpen automatikoak euskaraz

Eleka Ingeniaritza Linguistikoak Opentrad itzulpen automatikoko proiektua burutu du, hainbat enpresa eta unibertsitatek lagunduta. Horien artean, Elhuyar Fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea aipatzekoak dira.

Opentrad proiektua transferentzia sintaktikoan oinarrituta dago eta kode irekikoa da. Itzulpenak katalanetik gaztelaniara, gaztelaniatik katalanera, galegotik gaztelaniara, gaztelaniatik galegora eta gaztelaniatik euskarara egiten ditu. Hala ere, euskarazko itzulpenak oraindik oso zuzenak ez direla jakinarazi beharra dago. Opentrad proiektuaren demoa hurrengo helbide honetan topa daiteke: **www.opentrad.org**

Xuxen QuarkXpress Mac OSX

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak Xuxen zuzentzaile ortografikoaren bertsio berria prestatu du, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hala aginduta. Bertsioa Macintosheko QuarkXpress 6.x-ekin batera erabil daiteke eta hurrengo helbide honetan deskarga dezakezue: **www.euskara.euskadi.net/euskara_soft.** Instalazioari buruzko xehetasunak toki horretan bertan topatuko dituzue.



Iñaki

Bilbon jaio, Basaurin hasi eta aspalditik hona Larrabetzun bizi da. Radio Euskadin entzuten den ahots sendoa. Musika zale aktiboa eta pasiboa. Begi-belarri zorrotz eta esperientzia handiko kazetari honek hau guztiau kontatu digu…

Testua eta argazkia: Pospolin

Zure curriculum laburra, mesedez?
83garren urtetik hona Larrabetzun bizi naiz, Kazetaria formazioz, baina "plan zaharrekoa", hau da, Sarrikon hasi nintzan Ekonomia Zientziak ikasten. Nire promozioan, kuriositate bezala, pertsonaia ezagunak ibili ziren, adibidez, Bernardo Atxaga, Julian Sancristobal, "Mari Flor" ezizenarekin ezagutzen zen Amedo famatua, eta abar. Orduan, ikasten nengoela, gaur egun gezurra badirudi ere, La Gaceta del Norte egunkarian lan eskaintza bat agertu zen, irratirako ahotsak eskatuz. Ni, sasoi hartan antzerki talde batean nenbilenez, eta horretarako ahotsa landu behar zenez, aurkeztu nintzen, eta Radio Popular edo gaurko Herri Irratian hasi nintzen lanean 1972an, eta betiko sartu zitzaidan ziria.
Harrezkero esperientzia handia hartu duzu mundu horretan…

Berasategi, ahots ezaguna

Beti gustatu izan zait kazetaritza, eta profesioan sakontzeko aukera aprobetxatu egin nuen: hasi nintzen esatari gisa, gero erredaktore moduan, edozein gauza egiten… Aurrerago, oraindik ere Francoren garaian, sortu ziran Madrilen aldizkari batzuk, Cambio 16, Posible, Doblón eta horrelako frankismoaren kontrako astekariak zirenak. Orduan, Madrilgo aldizkari batzuentzako artikuluak egiten hasi nintzen korrespontsal moduan. Handik gutxira Franco hil egin zen, eta gauzak aldatu egin ziren apur bat. Euskadi inportantea zenez notizia mailan, Diario 16-ek delegazio bat zabaldu zuen hemen, eta hor ibili nintzen. Gero, Parisera joatea eskaini zidaten korrespontsal lanetan, eta urte bat egin ondoren, berriro hona bueltatu eta milaka proiektutan parte hartu nuen: Euskadi Press berri-agentzian, Punto y Horan, Madrilgo agentzian batentzako erreportajeak egiten… Gero, 1983an Radio Euskadi sortu zenean, oposaketara aurkeztu nuen neure burua, gainditu, eta, harrezkero han nabil. Hasieran, sasoi hartan oposaketak nahiko zabalak izan zirenez, eta nire ibilbidea ezaguna izan arren, informatibo buru izendatu ninduten, gero programa buru, eta orain erredaktore apala. Egia esateko, ardura lanetan bilera asko egin behar da, eta hobeto nago horrela, benetako irrati lana egiten dudalako. Geroago, liberazio orduak lortzeko asko borrokatuta, euskara ikasteko ere aprobetxatu dut kazetaritza lanak uzten duen denbora apurra.

Eta zein da musikarekin duzun harremana?

Nire gurasoek ez zekiten, eta nik ez dut ikasi musikarik. Nire musika zaletasuna, batez ere, irratitik dator. Irratian musika asko entzun dut; gainera gure nerabezaroko Beatles eta Rolling Stones, eta sasoiko taldeen inguruan "mobida" itzela zegoen; bestalde, bide horretan euskal kantagintza berriaren sorrera ere gertatu zen. Azkenean, beti gustatu izan zaidanez, eta irratian aukera gehiago dagoenez, ez bakarrik entzuteko, baizik eta inguruan lan egiteko ere (diskoak, informazioa, erreportajeak…), musika irrati saio asko egin dut: *Té para dos*, *Euskal Grafitti* magazinaren barruan musika atalak, *El tunel del tiempo de la música vasca*…

"Nire musika zaletasuna batez ere irratitik dator, irratian musika asko entzun dut"

Eta gaur egun?

Hilabete honetan, jakingo duzuenez, Espainiako gerra zibilaren 70. urteurrena izan da, eta, horren inguruan, erreportaje bereziak egiten ari naizenez, garaiko musika ikertzen eta sartzen ari naiz.

"Lokalak behar dira Txorierrin, gazte taldeentzako, koru-taldeentzako edo musika egin gura duenarentzako"

Irratitik kanpo ere zerbait egiten duzula entzun dugu…

Gauza txikiak egiten ditut, esate baterako, Bihotz Bakartien Klubarekin kolaboratu musika aukerak egitean, edo poema musikatuak plazaratzekoan perkusioa joz, edo etxean dudan disko-kolekzioa, pieza bitxi eta bereziekin, entzun eta aztertu…

Zure esperientziatik, nola ikusten duzu musikaren osasuna Txorierrin?

Lehenengo eta behin, nik uste dut lokalak behar direla, ez bakarrik gazte taldeentzako, baita ere koru-taldeentzako edo musika egin gura duenarentzako, azpiegitura minimoa behar da, garestia ez dena, baina oso inportantea dena musikari laguntzeko: ensaiatzeko leku intsonorizatua, aldagela txiki bat, grabatzeko tresneria, bateria edo musika tresna batzuk…, azpiegitura txiki bat. Hasieran, behar bada, inbertsio apur bat eskatuko du, baina gero jende askok aprobetxatu dezakeena izango da, kultura eta musika lantzeko. Larrabetzun adibidez, badaude abesbatza, literatura musikatzen duen BBK eta hiru rock-talde. Horrelako azpiegitura bat antolatuz gero herri bakoitzean, edo mankomunitate mailan, ume eta gazte askoz gehiago hurreratuko litzateke musikara, kulturara eta lagunartera, eta gainera, hortik sor litezke beste proiektu batzuk eta sinergiak; azken batean erabaki politiko txiki bat da. Soloa prestatu egin behar da. Musika eta bizitza beti joan dira lotuta.

Ikerlari bokazioa ere baduzu, zer ikertu beharko litzateke euskal musikan?

Beste gauza askoren artean, *Ez dok amairuren* inguruko ikerketa sakona behar dela uste dut, ekarpen handia izan baita.

"LAIA HOTEL MUSEOA"

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:
Larrondoko frontoiaren inguruan
Irabazlea:
Maite de la Presa

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako asteburu batean gau bat pasa Laia Hotel Museoan, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne.

Hilabete honetako galdera zera da:

Non sortu da ostalaritza-elkartea?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Zapo- eta otarrainxka-brotxetak

Osagaiak:
–Zotz luzeak
–150 g zapo garbi
–8 otarrainxka
–4 cherry tomate
-4 txanpinoi
–Piper berdea edo horia

Prestatzeko era:
Zotzean otarrainxka-isats bat jarriko dugu. Eta ondoren, piper zati bat, tomate txiki bat, zapo puska bat, txanpinoi erdi bat, beste langostino bat… Zartaginean olio tanta bat bota eta brotxeta bi aldeetatik erreko dugu. Erre ostean, gatza botako dugu gainetik.

www.sukaldeon.org

Entsalada jogurtarekin

Osagaiak:
–Jogurt natural bi
–1 piper
–1 pepino
–1 kipula
–Berakatz atal bi
–Gatza
–Piperbeltza
–Perrexila
–Albahaka

Egiteko era:
Pepinoa, kipula eta berakatzak zurituko ditugu. Piperra garbitu eta filamentuak eta haziak kenduko dizkiogu. Barazkiak oso tira mehetan moztuko ditugu eta entsalada ontzian jarriko ditugu. Ondoren, jogurtak, piperbeltza eta gatza bota eta dena nahastuko dugu. Perrexila eta albahaka txikitu eta gainetik botako dugu.

www.karlosnet.com



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Lasto sua
Aingeru Epaltza
Zortzi ipuinez osatutako liburua. Bertan agertzen dan lehenengo ipuina 1989an egin eban. Beste zazpiak hainbat egunkari, aldizkari eta kultura taldeek eskatutakoak dira.

GAZTEENTZAT
Ainhoa eta marrazoa
Josu Lartategi.
Portobelloko argazkia
Vicente Muñoz Puelles
Metro bateko letrak
Julen Gaviria
Amona basoan galdu zenekoa
Arantxa Iturbe
Ur-jauzien negarra
Inongo Vi Makomé
Berba galduen putzua
Seve Calleja

MUSIKA

Biziago sentitzen. Mugaldekoak
Jauzia. Sei urte
Sugan. Sugan

Ilunago, ederrago. Leihotikan
St. Elsewhere. Gnaria Barkley

DENBORA PASA

HITZDORREA

1. Egokiera, abagunea
2. Antolatu
3. Bigundu
4. Erraz mintzen duena
5. Huraxe
6. Berriro adierazteko aurrizkia
7. Sargori
8. Zoratu
9. Hutsa
10. Gauza batez galdetzeko
11. Deus
12. Gauzaren bat

www.habe.org

Agenda

Erakusketak

Zamudio
–"Zamudioko Udala" IV. Pintura Lehiaketan parte-hartzaileen koadroak, irailaren 4tik 28ra, dorretxean.
Larrabetzu
–Irudiak, Pedro Chillidaren eskutik, Anguleri Kultur Etxean.

Irteerak

Sondika
–El Soplao kobazuloa eta Comillas-Kantabria (urriaren 8an). Izena emateko epea: irailaren 11tik 15era.
–Kilometroak (urriaren 1ean, Oiartzun). Izena emateko epea: irailaren 11tik 17ra, gaztetxean.
–Nafarroa Oinez (urriaren 15ean, Beran). Izena emateko epea: irailaren 25etik urriaren 1era, gaztetxean.
Zamudio
–Toloño, abuztuaren 6an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
–Kilometroak (urriaren 1ean, Oiartzun). Izena emateko epea: irailaren 28ra arte.
Lezama
–Kilometroak (urriaren 1ean, Oiartzun). Izena emateko epea: irailaren 11tik 15era.
–Nafarroa Oinez (urriaren 15ean, Beran). Izena emateko epea: irailaren 11tik 15era.
–Lokizeko mendilerroa (Nafarroa), irailaren 24an, Gailur mendi taldeak antolatua.
Larrabetzu
–Kilometroak (urriaren 1ean, Oiartzun). Izena emateko epea: irailaren 11tik 15era.
–Nafarroa Oinez (urriaren 15ean, Beran). Izena emateko epea: irailaren 18tik urriaren 2ra.
–Orozko museoa, irailaren 22an.

Ikastaroak

Udal ikastaroetan izena emateko epea: **Sondika,** irailaren 5etik 13ra; **Loiu**, irailean zehar; **Derio,** irailaren 19tik 21era; **Zamudio,** irailaren 25era arte; **Lezama,** irailaren 11tik 22ra; **Larrabetzu,** irailaren 18tik 20ra.

Jaiak

Sondika
–Santa Kurtze, irailaren 14tik 17ra, Larrabarrena parkean.
Derio
–Santi Mami, abuztuaren 16tik 18ra.
–San Migel, irailaren 22tik urriaren 1era.
Larrabetzu
–Andramariak, abuztuaren 13tik 16ra.
–San Bartolome, abuztuaren 24an.
–Emeteriak, abuztuaren 30etik irailaren 1era.
–San Migel, irailaren 29an.
Zamudio
–Santi Mami, abuztuaren 16tik 18ra.
–Sandoni, irailaren 2an eta 3an.
Lezama
–Sandoni, irailaren 2an.
–Andramariak, irailaren 3tik 9ra.
–Bolalekuko jaiak, irailaren 10ean.
–Kurtzeko jaiak, irailaren 13tik 16ra.

Kirolak

Zamudio
–Zamudio-Zamudio Zikloturista, irailaren 23an, 9:30ean, Bidekoetxe parkean.

Bestelakoak

Sondika
–Nire Autorik Gabeko Sondika, irailaren 22an, 17:00etatik aurrera, Sabino Arana kalean. Lantegiak, jolas-parkea, txorizo jatea…
Lezama
–Uzta Eguna 06, urriaren 1ean.
Larrabetzu
–Gazte Eguna, uztailaren 29an eta 31n.
–Mugikortasun Iraunkorraren Aldeko Astea, irailaren 16tik 22ra. Tailerrak, puzgarriak, ekintza bereziak…

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da







Gizartearen, gure pertsonen inplikazioaren eta haberkuntzaren jarraikortasunaren bitartez, berrikuntza eta inguramenarekiko errespetuaren bidez, Rikaintzaren riesgoak bidez.

ITP

GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

Euskal

ER

ER

IDMAS

Erreferentziako
kartela-
finantza-kartelen
erradesuri
guztiekin eta
galnera...

**Bidaia-
asistentziako
doako asegurua**
abantailak era
guztietako 2.000
establecimenduetan.
Deskontuak
mundu osoan
izateko gilza.

Kontsultatu
**BBK26 gida,
www.bbk.es**
orrian